

Marian Larzabal erakusketaren antolatzaileetako bat eta Joxean Muñoz Tabakalerako zuzendaria lantegiko langile ohi batzuekin, atzo. RAUL PEREZ

# EGIAN, EGIARI BURUZ

**Erakusketa**» Auzotarren testigantzekin eta argazki zaharrekin osatu dute 'Egiatik' erakusketa Tabakaleran.

RAUL PEREZ

Nuestra Señora de la Pazeko ikastetxeko ikasleak –Ametzagaña kalearen hasieran zegoen, gaur egun zaharren egoitza dagoen tokian– Goreti arrebarekin 1959an; zenbait auzotar Atotxan 1956 baino lehen ateratako argazkian; Madalenen bazkaria beharitsuen egoitzan... Horiek dira Tabakaleran sartu eta eskuineko areto handian jarritako irudi zaharretako batzuk. Argazkiekin batera, halaber egiatarren testigantzak dira atzo zabaldu zuten *Egiatik* erakusketaren ardatza. Egurrez osatutako etxola modukoetan sartu dituzte, fineran lantegiko tsaanemateko, eta pantailaketaauriularrak jarrita, egiatarrek kontatakoa entzun daiteke. Okupgraf taldeko Marian Larzabalek eta Iñigo Royok gidatu dute erakusketa.

Iñigo Royoren hitzetan, konfiantzan eta konplizitatean oinarritutako proiektua da *Egiatik*. «Tabakalerako langile ohi askoren konfiantza bereganatu behar genuelako». Royok atzoko aurkezpenean nabarmendu zuenez, ez da bakarrik historiari buruzko erakusketa. «Kultura geraikidea ere bada, auzotarren testigantzetan gaur egungo kezkak azaltzen direlako, hala nola, etxebizitzaren prezioa, lana eta bizitza pertsonala bateragarriak egiteko zailtasunak...».

Elkarrizketa bakoitza burujabe dela esan zuen Royok, «baina denak batera munduaz ezagutzeko laguntzen digun mosaikoa da». Okupgrafeko kideak nabarmendu zuen Tabakalerako langile ohi batzuen testigantzak guztiz ezberdinak izandirela elkarren artean. «Ematen zuen ez zutela toki berean lan egin». Hala zuzen ere, Tabakalerako langile ohi batzuk izan ziren atzo lozorrak, urtetan beren lantokia izandakora itzuli baitziren. «Zuen etxean zaudete», zuzendu zitzaien Joxean Muñoz Tabakalerako zuzendariak.

Erakusketak esanahi berezia duela adierazi zuen Muñozek, «guretzat gertutasuna Egia delako». Erakusketa egun batean baino gehiagotan bisitatzea gomendatu zuen Tabakalerako zuzendariak. «Bideook 20 minutu irauten dutenez, ezinezkoa da dena egun berean ikustea». Muñozek gaineratu zuen erakusketa soila baino gehiago egin nahi izan dutela, eta hori dela-eta, beste zenbait jarduera izango dira. Tabakalera berriz ere herritarrei irekitzeko aprobetxatu nahi dute.

**» DATUA**

**2.000**

**▪ argazki baino gehiago.** Royok eta Larzabalek 2.000 argazki baino gehiago bildu dituzte. Haietako batzuk erakustaretoan daude jarrita, eta beste asko erakusketaren bukaeran. Etengabe ikusi ahal izango dira pantaila batean.

## «Oroitzapen onak ditut; niretzat ihesbidea ere bazen lantokia»

40 urte eman zituen lanean Pilar Alonsok Tabakaleran. Oroitzapen on asko dituela dio.

«Azaroaren lean hamar urte beteko dira lantegia utzi nuela. Enplegu erregulazioa egin zuten». Pilar Alonsoren hitzak dira. 40 urte eman zituen Tabakaleran lanean Alonsok, paketatzaile. Ilusio handia egin dio Tabakalerako erakusketak, batik bat, bere burua ikusi duelako argazkietako batean.

Kazetari askok jo zuten atzo langile ohiengana, baina haiek ilusio berarekin hitz egin zuten guztiguztiekin. Tabakalera lantoki zuen, baina irribarrea ezpainetan zuela gogoratzen zen Egiako fabrikan emandako urteetaz. «Lankideekin oso ondo moldatzen nintzen, eta gainera, lana ihesbidea ere bazen, ama gaixo nuelako». Pili Jauregi lankide izandakoa aipatu du Alonsok. «Lantokia apaindu ohi zuenik, San Sebastian eguna zela edo beste jai bat zela».



Pilar Alonso, erakusketako argazki bat seinalatzen: bera ageri da lankideekin.

## «Zortzi urterekin bazkaltzen nuen lantegian»

Amona eta amaren urratsei jarraituz, Tabakaleran egin zuen lan Koro Etxeberriak.

Bost urte baino ez zituen eman Koro Etxeberriak tabako fabrikan, baina bere familiak oso harreman estua izan zuen Tabakalerarekin. «Amonak tabako fabrikan jardun zuen, Garibay kalean zegoenean, eta ama hemen aritu zen».

Lanean hasi zenerako, Mandasko dukearen etxetzarrak sekretu gutxi zituen harentzat. Izan ere, zortzi urterekin Tabakalerara joaten zen bazkaltzera. «Amak goiz eta arratsaldez egiten zuen lan, eta ez zuen astirik eguerdian etxera joateko. Ondorioz, ni etortzen nintzen hona eskolatik ateratakoan bazkaltzera». Ahal duenean, gainera, Tabakalerara itzultzen da erakusketak ikustera. «Etorkizunean hemen ahalik eta gauza gehien egitea gustatuko litzaidake, eraikina oso handia delako».



Koro Etxeberria.



Marian Larzabal, erdian, Tabakalerako langile ohiekin hizketan, atzo. R. PEREZ

# «Zailena izan da hiru orduko elkarrizketak 20 minututan laburtzea»

**MARIAN LARZABAL** › 'Egiatik' proiektuaren antolatzailea

**Elkarrizketa** » Auzotar askorengana jo dute Marian Larzabalek eta Iñigo Royok testigantza bila.

R. PEREZ

Iñigo Royorekin batera egin du lan Marian Larzabalek *Egiatik* proiektuan. Hasiera batean, Gipuzkoa mailako lana egin behar zuten, baina Joxean Muñoz Tabakalerako zuzendariak ideia Egiara ekartzea proposatu zien.

**Nola izan da erakusketa prestatzeko prozesua?**

Oso gustura aritu gara. Testigantza bakoitza historia bat da bere aldetik, baina guztiek lotuta ere zentzua badute.

**Elkarrizketak egin, argazkiak jaso... Gogorra izan al da lana?**

Gogorra baino gehiago esango nuke lan trinkoa izan dela, baina asko disfrutatu dugu. Auzotar askorengana jo dugu eta gehienek oso ondo hartu gaituzte. 27 auzotar elkarrizketatu ditugu, 15 bat Tabakalerakoak eta gainerakoak lantegiarekin harreman zuzenik gabekoak. Zailena, zalantzarik gabe, hiru ordutan kontatutakoa 20 minututan laburtzea izan da, elkarrizketaren espirituari eutsita. Bestalde, 2.000tik gora argazki bildu ditugu, gehienak 40ko eta 70eko hamarkada artekoak. Dandai Emakume Elkartearen laguntza ere azpimarratuko nuke.

**Zer ikasi duzu Egiari buruz?**

Auzo kontzientzia duela. Garai batean muga moduko bat zegoen Egia eta Donostiaren artean eta kanpotik bakarrik hilerrira eta Atotxara etortzen ziren. Hori endiguzetik kanpoko auzoetan gertatzen da.

**Auzoaren iraganera jotzeaz gain, auzotarren gaur egungo kezkak ere islatzen dira bideoetan. Zergatik?**

Gu guztiok gogoeta egiten eta pentsatzen laguntzen digutelako horrelakoek.

adibidez. Horren harira, bisita gidatuak egingo dituzte, eta berrikuntza gisa eraikinaren soinuaz ariko dira. «Toki guztiek berezko soinua dute, baina egunerokotasunean murgiltzen garenean ez gara horrekin ohartzen. Danborrada, eguerdiko sirena, su artifizialak... Horiek guztiak nola entzuten diren hemendik jabetu ahalko gara», azaldu zuen Muñozek. Bestalde, Joseba Inbaustik Egiaren historiari buruzko hitzaldia emango du azaroaren 20an. Argazkilari Elkarteak, bere aldetik, argazki lehiaketa egingo du azaro hasieran eta auzotarrei Egiari buruzko argazkiak aurkezteko aukera ere emango diete. Abenduaren 20an bukatuko da erakusketa. Muñozek aurreratu zuenez, Tabakaleraren webgunean argazkiak eta bideoak zintzilikatuko dituzte.



## » JARDUERAK

Asteazkenetik igandera bisitatu ahalko da erakusketa, 16:30etik 20:30era, abenduaren 20ra arte. Sarrera doan da. Jarduera hauek egingo dituzte erakusketarekin:

- **Hilak 30, osteguna.** Tabakalerako Soinu Maparen aurkezpena, 19:30ean.
- **Azaroak 1 eta 2, larunbat eta igandea.** Argazki rallya Tabakaleran, 10:00etatik 14:00etara. Izena San Joan kaleko Argazkilari Elkartean eman behar da.
- **Azaroak 6, osteguna.** Tabakaleraren etorkizunari buruzko aurkezpena eta eztabaida, 19:30ean.
- **Azaroak 20, osteguna.** Joseba Inbaustik Egiako historiari buruzko hitzaldia emango du, 19:30ean.
- **Azaroak 27, osteguna.** Tabakaleran sortutako film eta bideo klipen aurkezpena, 19:30ean.
- **Abenduak 4, osteguna.** EHUko Arkitektura ikasleek Tabakalerari buruz egindako lanak aurkeztuko dituzte, 19:30ean.
- **Abenduak 6, larunbata.** Soinu tailerra haurrentzat, Tabakalerako Soinu Maparen sortzaileekin, 11:00etatik 13:00etara.
- **Abenduak 11, osteguna.** Argazki rallyan ateratako argazkiak erakutsiko dituzte, 19:30ean.
- **Abenduak 13, larunbata.** Soinu tailerra haurrentzat, Tabakalerako Soinu Maparen sortzaileekin, 11:30etik 13:00etara.
- **Abenduak 18, osteguna.** Tabakaleraren etorkizunari buruzko aurkezpena eta eztabaida Joxean Muñozekin, 19:30ean.



Goian, Egiari buruzko bi argazki zahar. EGIATIK ERAKUSKETA



Egunezko etxola modukoetan daude bideoak. RAUL PEREZ

informazioa
h
i
HITZAren harpidedun egiteko:
902-82 02 01
hitza@harpidetza.info
egunkaria buzoian,
zozketak eta deskontuak,
promozioetan abantailak,...
HITZAri buruzko informazioa
hitza, orain gertuago